

**ZENBAT BURU**

Idoia Esnaola

**ERREPORTAIA**

Elgoibartarrak liburu gintzan

**UDALETXETIK**

Azaroaren 29ko plenoa

**BERBETAN**

Aitor Zabaleta  
Ecuadorretik bueltan

**KIROLA**


Nazioarteko  
Xake  
Txapelketa

# BARREN

1998ko urriaren 13a  
V. urtea - 256. zkia

## Jasone Osoro:

# “Sariak zure lana errekonozitzeke balio



“Aurrera begiratzen ez duena atzean dago”

# GARATE

Jantzidenda

San Bartolome, 13

Tel: 943 74 11 29

DagoeneKo  
gure bezero  
batzuk  
Gabonetako  
opariaK  
prestatzen  
hasi dira...

eta zu?

*Larunbat arratsaldeetan zabalik*



M. KARMEN ELORZA

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Karobi-etzeiak

**G**aztetako oroitzapen batzuk etorri zaizkit burura. Nire barruko kuxtari astindu bat eman ondoren, hona hemen zer aurkitu dudun: karobi etzeiak, alajaina.

Oso gaztea nintzela erre genuen azken karobia, 1953ko udaberrian hain zuzen ere. Karobia, karobi errekin, karea... urte asko pasa diren arren, gauza batzuk gogoan ditut oraindik. Ea haietako bakoitza zer den piska bat argitzen dizuedan.

Karobia karea egiteko labea da. Gaur egun puskatuak edo sasipean galduak dauden arren, nire jaiotetxean hiru ezagutu nituen nahiko egoera onean. Hauetatik bi erabili ere egin genituen karea egiteko.

Hiru egunez eta hiru gauzez gelditu gabe erretzen jarraitu behar zuenez, errekin nahikoa inguratuta eduki behar zen aurrez. Ote, sastraka, sasi eta adarrez osatutako txorta mordo bat inguratzen genuen. Lan hau neguan egiten genuen soroetako lur lanak bukatzen zirenean. Mendi sail ederrak garbitzeko oso egoki zetorkigun lan hau, ardi larreak garbitu eta berrituz.

Hona hemen karobia piztu aurretik egin beharrekoen argibide batzuk: aurrena, karobi zuloa garbitu eta prestatu egin behar da. Ondoren, kareharriz kargatu. Hori bai, kareharriz izan behar da, karea egiteko ez baitu edozein harrik balio.

Bestalde, karobia kargatzea ezin du edozeinek egin, dakiena eta ohitura duena izan behar da. Garai hartan Mendaron bazen lan horretan oso egokia zen gizonezko bat: Martzel Iriondo zen berau.

Karobia bete ondoren, piztu eta kontu handiz zaindu beharra dago, hiru egunez sutan egon behar du, hori baita kareharriz kare bihurtzeko behar duen denbora. Suaren bero-

tasuna berdin-berdin zaindu behar da kalitatezko karea egin nahi bada.

Garai hartan baserrietan familia handiak izan arren, ez zen nahikoa izaten, eta auzo lanera jo behar izaten zen lan hau burutzeko, txandaka egin behar baitzen.

Karea zelakoa den ondo dakitenak asko izango dira, baina gaztetxoan artean egongo da ez dakienik ere. Ni neu ez naiz zuri-zuria eta onuragarria den lehengai honetan oso aditua, baina beraren hautsa ahoz edo sudurrez arnastuz gero, itolarri handia ematen duela probatua naiz. Baita kare bizia urarekin nahastuz gero, irakiteraino berotzen dela eta erre ere egin dezakeela.

Udaberrian artoa ereiterakoan lurrari karea beti nahasten genion, onuragarria izateaz gain, landareentzat kaltegarriak ziren mamorro asko akatzen baitzituen eta lurtean garbitasun handia egiten baitzuen.

Gaur egun soro eta baratzetan karerik ikusi ere ez dugu egiten. Barazki ederrak lortzen dituztela egia da, baina kare piska batek lurrari mesede egingo lioke, batez ere indarberritze prozesuan.

Karobiari buruz gauza gehiago ere esan litezke oraindik, baina gehiegi luzatuko nintzateke. Lan handia bazen ere, bukaera polita izaten zuten karobi erretzeek. Honetaz oroitzapen onak ditut, oso. Karobia erretzen parte hartzen zuten guztiak bazkari bat eginez elkartzen ziren. Horrenbeste lanen ondoren zer gutxiago ba! Artaldean jaiotzen zen arkumerik ederrena egun horretarako gizentzen genuen.

Nik berriz ere karobia betetzen eta erretzen pozik ikusiko nuke, baina aukeran ipiniz gero, bazkaria edo 'karobi-etzeia' nahiago.

Barrak, Birak eta Barreak







Nafarroa enparantza, 2  
 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Publizitatea:  
 ☎ 943 74 37 04  
 Faxa: 943 74 37 04  
 E-maila:

barren@topagunea.jalgi.com

<b>ARGITARATZAILEA</b>	Elgoibarko Izarra
<b>LAGUNTZAILEA</b>	Elgoibarko Udala
<b>ZUZENDARIA</b>	Ainhoa Lodoso
<b>KAZETARIAK</b>	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
<b>PUBLIZITATEA</b>	Miren Moreno
<b>MAKETATZAILEA</b>	Bea Ansola
<b>ADMINISTRAZIOA</b>	Amaia Martin
<b>GERENTZIA</b>	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
<b>KOLABORATZAILEAK</b>	Irati Agirreazaldegia, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, Iñaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Iban Urizar, Miren Vallejo.
<b>BANAKETA ARDURADUNA</b>	Imanol Larrañaga
<b>INPRIMATEGIA</b>	Gertu Koop. E.
<b>TIRADA</b>	4.000 ale
<b>LEGE GORDAILUA</b>	SS-1.038/92
<b>ISSN</b>	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
 Jaurlaritzako Kultura  
 Sailak eta Foru  
 Aldundiak diruz  
 lagundutako  
 aldizkaria.*



## Hurakan baten oraina eta geroa

Lehenengo eta behin, Ertamerikari neure elkartasuna adierazi nahi nioke hurakanak eragindako kalte eta hildakoengatik.

Hurbiletik jarraitu dut komunikabideen bidez han gertatutakoa, orain urte batzuk Ertamerika ezagutzeko eta El Salvadorreko bake prozesuan parte hartzeko aukera izan nuelako.

Gutun honen bidez azken egunotan komunikabideek ezbehar ikaragarri honi emandako tratamendua salatu nahi nuke. Telebistan ematen den espektakularizazio prozesuaren ondorioz batez ere, sentsazionalismoak soilik izaten du lekua: irudi gogorak, mingarriak, hunkigarriak,... eta badi-rudi honek ematen diola audientzia telebistari. Bestetik, komunikabideen hipokresia salatu nahi nuke. Ertamerikak lurrikararen ondorioz bizi duen egoera ez baita berria, kolonizazio bortitza pairatu izan zuten Amerikako herrialdeek mendeak daramatzate egoera tamalgarrian. Nik neuk ikusitakoaren arabera, ez da berria Ertamerikako biztanleak edateko urik edo argindarririk gabe bizitzea (biztanleen %64ak ez du edateko urik). Ez da berria gosez hiltzea (umeen %70ak elikadura arazoak ditu), ezta errepiderik ez izatea ere,... Zerrendak luze joko luke.

Nazio desegituratuak dira, antolakuntza maila txikikoak. Arazo larriak dituzte administrazioan, osasunean, eskolarizazioan (biztanlegoaren %43ak ez daki irakurtzen ez idazten), asistentzia sozialean eta egitura ekonomikoan (nekazal eremuetan langabezia %45ekoa da eta %8ak jasotzen du Estatuak urtero batutako diruaren erdia). Lurren %60a biztanlegoaren %2aren esku dago eta %97a 12 akre- ren jabe da.

Hau guztia gutxi balitz, Ertamerikako herrialde guztietan gerra zibila izan da nagusi azken 100 urteetan. Lur jabeek, botere ekonomikoek eta militarrek eraman dute Ertamerika gaur egun dagoen zulora, iragarritako heriotzera; hau guztia, estatu Batuen

eta FMiren gidaritzapean.

Hau da Ertamerikako benetako hurakana eta komunikabideek ez diote honi erreparatzen. Komunikabideek gaurkotasan handiko albisteak behar dituzte, eskandalosoak eta gehienetan interes jakin batzuen menpe daudenak, baina halako albisteak hurakanak bezala pasatzen dira, hau da, berehala kadukatu eta ahazten dira.

**Izaskun Arozena**

## Ertamerikarako laguntza eman duzuenoi eskerrak

Pilar ikastetxeko klaustroak esker- rarak eman nahi dizkie ikastetxeko di- ru bilketan parte hartu duten guztiei: ikastetxeko familiak, Elgoibarko he- rria eta beste herrietako (Eibar, Azkoi- ti, Mutriku...) hainbat kristau.

**Pilar ikastetxeko zuzendaritza**

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

## KEXAK

◆ Emakume batek esan digu ez zaiola logikoa iruditzen autobus geltokietan “ordutegia jartzeko tabloi modukoa egotea, baina ordutegiaren berri ematen duen orririk ez jartzea. Honekin batera, markesinak txukun mantentzea ere Eusko Tren eta PESA enpresen ardura dela pentsatzen dut. Baina bi enpresa hauek bere zeregina betetzeaz arduratzen ez badira, ez al luke Udalak bere gain hartu beharko ardura hau? Eusko Trenek eta PESAk erabiltzaileoi kasu egitea oso zaila da baina Udalak kezka bat azalduko balu, ziur nago aintzat hartuko luketela”.

◆ Jubilatua bat etorri zaigu herriko kaleen egoera salatu nahi duela-eta. “**Harri solte ugari daude kalietan eta edadekuak batez ere, larri ibiltzen gera noiz estropozo eingo dogun beldurrez.** Udalak atentzio gehixo ipiniko biharko leukie holako gauzei”.

◆ Arregitorreko bizilagun batek honako kexa hau ekarri digu: **Hiru etxe bloke hauetan dagoen parkea erabat lagata dago; kolunpioak, belarra,... dena. Honez gain, azken egunotan arratoiak ikusi ditut inguruan”.**

◆ Neskatala batek **Eliza ondoan, Leku-Ederren dagoen barraskilo formako iturriak urik ez duela botatzen salatu nahi du.** “Gutxienez hiru hilabete daromatza horrela eta badirudi ez dagoela ezer egiteko asmorik. Ez al dute konpondu behar?”.



## BAI, ESAN?



**J. Ramon Zudaire**

Misiolaria Hondurasen

Aste honetan Honduras-en dagoen misiolari baten testigantza jaso dugu. **Jose Ramon Zudaire Pilar ikastetxeko zuzendaria izandakoa** da eta duela zenbait hilabete Honduras-eko Jutiapa eskualdera joan zen San Viatorreko misioetara. Hilaren 4an Elgoibarko Pilar ikastetxera bidalitako fax batean azken egunotako hondamenaren berri ematen zuen.

- **Hondamena izugarria izan da Honduras-en.** - Bai, Jutiapa herria isolatuta dago eta zubi guztiak suntsituta. Ni eta beste bi misiolariak ondo gaude eta, zorionez, gure herrian ez da hildakorik izan. Udaletxea hankaz gora dago eta jendeak (ia 400 lagun) elizan jaten eta lo egiten du. Bizilekuak suntsituta daude eta erlijiosoek egokitutako lokaleetan bizi dira nola edo hala. Beste herrietako jendea etorri da eta nekazal eremuetako biztanle gehiago heltzea espero dugu. Arroza eta frijoleak amaitzeaz daude. Ez dago ez urik ez argindarririk eta 32 graduko tenperatura daukagu. Hozkailuetako janaria jan egin behar izan dugu alferrik galdu aurretik, baina beste asko alferrik galdu da. Epidemiak agertuko diren beldur gara (kolera, dengue, etab.). Gosearen eraginez, lapurrak etxe eta haziendetara sartuko diren beldurra dago eta salbuespen egoera dekretatu du Gobernuak.

- **Inguruko herrietan egoera larriagoa omen da.** - Papaloteca, El Diamante, La Bomba, Nueva Armeria... suntsituta daude. Azken honetatik autobus bat iritsi zen Jutiapara jendez gainezka, hurakantetik ihesi. Aita batek kontatu zigun euren umeak 10 metroko kokotero batera igo eta bertara lotu zituztela haizeak ez eramateko. Imaginatu 10 metroko arbola batera lotuta, euriak eta haizeak batera eta bestera astintzen zaituen bitartean. Igande gauetik aurrera hondamena da nagusi: ez irratirik, ez telefonorik, arbolak erroitik aterata, etxeetako teilatuak hegan, bat-batean desagertzen diren mendiak,... Biztanleak, bien bitartean, heriotzaren eta denboraren kontrako borrokari eutsiz. Jasotzeko zeuden uztak hondatuta...

- **Zein dira zuen asmoak?** - Batetik, jangela irekita mantentzea egunean jatordu bat behintzat eman ahal izateko. Bigarrenik, oinarritzko errekurtsioak herrixketara helaraztea Udaletxei eta Cáritas-i gure laguntza eskainiz. Eta azkenik, fondo ekonomiko bat sortzea beharra dutenei laguntzeko, egoera hau asko luzatuko baita. Orain ereindako produktu batek hiru hilabete behar ditu uzta emateko.



### I. URTEURRENA

1997ko azaroaren 14an, 58 urte zituela hil zen  
**JULIAN ETXEBERRIA ZUBIAURRE**ren oroimenez  
**URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian  
larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 19:00etan.  
Joaten zaretenoi eskerrak aldeaz aurretik.



# KULTUR ERROTA



martxan martxan martxan

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkarien Topaguneak *Kultur Errota* deritzan egitasmoa jarriko du martxan gaur (azaroak 13) Elgoibarren. Proiektu erraldoi honen helburua honakoa da: Euskal Herriko kultur gile guztiei –hasi berri diren artistei zein ibilbide profesional luzea dutenei– euren lana zabaltzeko zirkuitua eskaintzea. *Kultur Errotatik* 25 artista pasako dira, horien artean *Arima Beltza* musika talde elgoibartarra. Euskararen normalizazioan eragile izan nahi duen proiektu honetan 11 euskara elkartek jarriko dute eszenatokia eta erakunde zein enpresa askoren laguntza izango du.

**G**aur, azaroak 13, 25 emanaldiren bira hasiko da Elgoibarren. *Kultur Errotaren* hegala martxan jarriko dira.

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkarien Topaguneak euskaraz sortzen duten artistei zirkuitu kultural berri bat eskaini nahi die. *Ibilbidea* 11 euskara elkartek osatuko dute eta horietatik igaroko dira Euskal Herriko hainbat abeslari eta olerkari.

Proiektu honen asmoa, euskara elkarten kultur eskaintza aberas-teaz gain, belaunaldi gazteei aukera berriak eskaintzea da. *Kultur Errotak* belaunaldi gazteen aldeko apustua egin nahi du.

## Hitzak lehenasuna

*Kultur Errotan* hitza erabiltzen duten ekitaldiek izango dute lehenasuna eta, noski, gehienak euskaraz izango dira. Kultur dinamizatzailearen hitzetan, “argi dago kultur ibilbidean hitzari garrantzi handia eman behar zaiola. Azken batean, *Kultur Errotak* Topagunea osatzen duten euskara elkarten helburuan –euskararen normalizazioan– eragile


eta laguntzaile izan nahi du”. Halere, euskaraz ez diren emandiek ere izango dute lekua zirkuituan. Horrelakoetan, hizkuntz gutxituei emango zaie aukera.

## Tradizioa eta berritasuna

Kultur jarduera tradizionalak eta berriak uztartuko ditu egitasmo honek, jendea ohar dadin euskal kulturaren esparrua zabala dela, formula modernoak badaudela eta berriak sortzeko ahalmena ere badagoela.

Egitasmo berri honetan belaunaldi guztiak biltzeko ahalegina egingo da. Antolatzen diren emanaldiak ikuslego zabal batentzako izango dira. Dena den, gazteen eskaintzei nolabaiteko lehenasuna eman nahi zaie, “batez ere, hizkuntza aldetik giza talde honek duen garrantziarengatik”. Honela bada, izen ezagunek eskaintzen duten kalitatea ziurtatuta egoteaz gain, hasi berri diren taldeek ere zeresana eta zer eskainia badutela adieraziko da egitasmo honetan. Tartean izango da *Arima Beltza* musika talde elgoibartarra. Jazza, folka, dantzak, errezitaldiak, pailazoak...

## ARTISTEN ZERRENDA



Joxan Artze usurbildarra

Artxiboa: Egunkaria.



Caroline Phillips baionarra



Xabier Muguruza irundarra



Estilo horiek guztiek emango diote mugimendua *Errotari*.

Horrez hain, Euskal Herriko lurraldeen arteko komunikazioa erraztuko duen tresna izateko helburuarekin ere jaio da *Ibilbidea*. Lurralde desberdinetako tradizioa eta horietan dagoen eskaintza artistikoa ezagutzeko bitartekaria izan nahi du. Hori horrela izan dadin Iparraldeko zein Nafarroako artisten lanak eza-gutzeko modua izango da.

### Ilusioa eta gogoia

Topaguneak bi urte daramatza lanean eta denbora horretan euskara elkarte eta herri-aldizkari guztiak bilduko dituen gune bat izatearen alde lan egin du. *Kultur Errota* pauso bat gehiago izango da.

Apustua, formato txikiko muntaiak antolatzea izango da, xumeak eta, aldi berean, beroak.

## ZERGATIK KULTUR ERROTA?

□“Egitasmo honen helburuak kultur ibilbideak eskaintzea eta harremanak bideratzea dira. Ez soilik goitik datorren kultur mota, baita herri arnasetik jaitakoek ere. Eta, artoa eta gariaren antzera, arnasa ere garatu eta finduko bada, eguneroko bizitzan benetan txertatuko bada, errotan eman beharra dago. Hortik kultur errotarena”.

□“Elkarte bakoitzak bere *errota* jarri beharko du martxan. Izen handiko kulturgileei plaza bero bat eskainiz eta tokian tokiko artistei aukera emanaz.

□Kultur Errotak, azken batean, euskal kulturaren osagaia izan nahi du, Euskal Herri guztitik bere arto-haziak zabaldu nahi dituen kultur egitasmo berria”.

Euskara elkarteek eskainiko dituzten espazioak txikiak izateaz gain, artista eta entzuleen arteko harreman zuzena eta gertukoa ahalbideratuko dituen emanaldi-sortak jarri nahi ditu aukeran gune honek.

Eta emanaldi sorta horiek kultur munduan urte asko daramatzatenek edo hasi berri direnek osatuko dute. Guztira, 25 artista, argazkietan azaltzen diren batzuk, hain zuzen ere.

### Errotaren babesleak

Kultur Ibilbide berri honek elkarte eta artista askoren oniritzia jasotzeaz gain, Elkarlanean Fundazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesera ere izan du. Ezinbestekoa izan da bi erakundeen laguntza.

*Errotaren* hegalak jarri dira martxan, eta *Errota* geldo ez dadin ur korrontea indartsua izatea besterik ez da falta.

### ETA GAINERA...

*Arima Beltza* (elgoibartarak), *Patxi Kaleko* (Txingudi bailarakoak), *Ander Lipus* (markinarra), *Porrotx pailazoa* (lasarte-oriarra), *Petti* (beratarra), *Katalin Habans* (Larresorokoa), *Bi Luma* (aretxabaletakoa), *Wonder Brass* (bergararrak), *Fanbaltxa* (debarrak), *Martinola* (oñatiarrak), *Iñaki Labaka* (lezotarra), *Kintettoa* (bergararra), *Urtzi Urrutikoetxea* (bilbotarra), *Iñaki Salbador* (donostiarra), *Mixel Etxekopar eta Maddi Ohienart* (xiberutarrak), *Tabu tabar* (lasarte-oriarrak), *Mai Gorostiaga* (tolosarra), *Itzaletik* (azkoitiarrak), *The Porter Sharp* (irlandarrak).

## Kultur Errotan parte hartuko dutenak:

### Euskara Elkarteak

Eta Kitto (Eibar), AED (Arrasate), Berbaro (Durango), Laixan (Oñati), Elgoibarko Izarra (Elgoibar), Geu Gasteiz (Gasteiz), Jardun (Bergara), Loramendi (Aretxabaleta), Ttakun (Lasarte-Oria), Zuhatza (Deba), Zenbat Gara (Bilbo).

### Babesleak



EUSKO JAULARITZA



EUSKALGINTZA ELKARLANEN FUNDAZIOA.

### ARTISTEN ZERRENDA




Michel Ducau baionarra



Mikel Urdangarin durangarra

Artxiboa:Egunkaria.



J. Antonio Urbeltz, donostiarra

Artxiboa:Egunkaria.

# 'MITCH' HURAKANA

## Eman al duzu

## laguntzarik

## Ertamerikarako?



**FELIX TORRES**  
64 urte, jubilatua

Bai, zerbait eman dugu, BBV-ko kontu korrante batean, baina ez dakit zein erakunderentzat den. Esaten dutenez, emandakoaren %80 bakarrik heltzen da.



**GUDRUN PÉREZ**  
34 urte, irakaslea

Berba ein dou baina momentuz ez. Ailegauko dan seguridade minimo bat ematen daban edozein erakunderen kontu korrante batian sartuko neuke dirua.



**ANTONIO ALDAZABAL**  
50 urte, mekanikoa

Beti eman izan dou laguntasuna. Oin ere asmua bada-kau baina gerotxuo emango dou, ze hau luze jungo da eta gero ere biharko dabe zeozer.



**VICTOR MANUEL PENIN**  
26 urte, elektrizista

Bai, semea Pilarren dago eta bertara eraman dugu dirua. Hala ere, telebistak hango berriak emateari uzten dionean ahaztu egingo zaigu laguntza ematea.



**VIRGINIA BARRIADA**  
28 urte, langabetua

Bai, nire posibilitateen barruan eman dut. Gurutze Gorriarentzat da eman dudana eta ziur nago iritsiko dela, telebistan ikusi baita laguntza heltzen ari dela.



**MAITE ARANGUENA**  
31 urte, pedagogo

Bai, kontu korrante batera eman dou. Zein elkartentzat dan berdin jata, gauzia laguntzia da. Txarrena da zalapartia ixiltzen danian inor ez dala gogoratuko.

- Kontabilitate  
- Lan  
- Fiskal



**URKIDI**  
**AHOLKULARITZA**  
**ITT ERCOS ASEGURROAK**

Kalamua 12  
ELGOIBAR  
Tel-Faxa:  
943 74 18 91



**OIERKI IGOGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15 • ☎ ABERIAK 943 20 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR



Haurrentzako arropa  
Gaztetxoentzako arropa

Giza eskubideen enparantza, 1 • ☎ 943 74 46 53

**POL-POL**

**T A B E R N A**

San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74



# ISPILUARI BEGIRA



Jon Barandiaran.

**ECUADOR** bidaiak agentziakoa

- **Zure bizitzako zein unetara bidaiatuko zenuke?**
  - Haurtzarora edo institutu garaira.
- **Bizitza al da bidaiarik apasionanteena?**
  - Dudarik gabe, apasionanteena eta gogorrena.
- **Zure gustura eraiki ahal bazenu hiri bat, zein lekuz eta eraikuntzaz osatuko zenuke?**
  - Ez nuke horrelakorik egingo. Gauza bakoitzari dagoen lekua dagokio eta leku bakoitzak bere xarma du.
- **Bidaiatzeko garraio bat?**
  - Luzea bada hegazkina, bestela autobusa edo tren.
- **Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati?**
  - San Pedroko kanpa eta Olasoko atea.
- **Eta zein izkutatuko zenioke?** - Erreka.
- **Zein herrialde taraino eraikiko zenuke zubia Elgoibartik?** - Zelanda Berrira, esaterako.
- **Zein herrialdera joango zinateke dantza egitera?**
  - Irlandara.
- **Eta jatera?** - Txinara, esate baterako.
- **Museoak eta monumentoak ikustera?** - Italiara.
- **Jendea ezagutu eta ligatzera?**
  - Horretarako mundu osoa da aproposa.
- **Mendiak igotzera?**
  - Nepal-ek du fama baina ziur beste mendi izugarri polita asko ere badaudela munduan zehar.
- **Hondartzara?** - Californiara.
- **Eta abenturara?**
  - Abenturak era askotakoak izan daitezke. Abentura da Amazonas-en sartzea edo hiri haundi batean ibiltzea.
- **Zein hiru gauza eramango zenituzke desertura?**
  - Ura, brujula bat eta eguzkiaz babesteko zerbitu.
- **Bidaietatik "souvenir"ak ekartzeko ohituraik ba al duzu?** - Orain arte ez, postalen bat asko jota.
- **Bidaia asko egiten al dituzu irudimenaren bidez?**
  - Bai, gehienak.
- **Joango al zinateke ilargira kohetez?** - Zergatik ez?
- **Hil eta gero, nora botatzea nahi zenituzke zure errautsak?** - Naturarekin harremana duen edozein lekutara: itsasoa, mendia...

KULTUR

22:30ean

AZAROAK 13

ostirala

ERROTA KULTUR

1. saioa

- **PATXI KALEKO** folk taldea  
[Aitor Furundarena, Hurbil Artola...]
- **BI LUMA**, poesia eta musika
- **ANDER LIPUS**, monologoa
- Kafea, pastak eta kopatxo bat

KULTUR ETXEKO SOTOAN

ERROTA KUL

500 pta.



TOPAGUNEAN



## ● Hezkuntza Ministerioak Ikastoletako ingeles metodoa saritu du

San Bartolome Ikastolak bidalitako prentsa ohar batean esaten denez, Ikastoletan ingelesa irakasteko metodoa saritu du Madrileko Hezkuntza eta Kultura ministeritzak. Saria asteazkenean (hilak 11) jaso zuen Ikastolen Elkarteko ordezkari batek Esperanza Agirre ministroaren eskutik. 1992an, Ikastolako 4 eta 5 urteko haurrei hirugarren hizkuntza irakasteari ekin zitzaion. Adin honetako haurrekin erabilitako metodologia hainbat elementutan oinarritzen da: europar lankidetzaren proiektua (Birmingham, Amsterdam, Erroma eta Euskal Herriaren artekoa), proiektuko kideen inplikazioa eta urteroko ebaluazio zorrotza. Ikastolan 4 eta 5 urterekin ingelesa ikasten hasi ziren lehen ikasleek 10 eta 11 urte dituzte gaur egun. 6 urte hauetan, 250 ikasle inguru prestatu dira metodologia honen, eta orain bi urte, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza Sailak metodologia hau sare publikoko ikastetxe batzuetan aplikatzeko interesa azaldu zuen. Interes hau Euskal Herritik kanpo ere zabaldu omen da, gero eta ikastetxe gehiagok erabili nahi baitu.

## ● AEK Eguneko zoketako zenbaki saritua

Joan den domekan Legution (Araba) ospatu zen AEK Egunean, 2 laguntzako 15 eguneko Caribera bidaia zozketatu zen. Zenbaki saritua 21.129 izan da. Elgoibarko AEK Euskaltegiak eskerrak eman nahi dizkie errifak saltzen aritu direnei eta erosi dituzten guztiei.

## Osasun Ministerioak seropositiboen zerrrenda egingo duela salatu du Errotatzok

Urtarriletik aurrera, VIH birusa duten guztiak agertuko dira

Osasun Ministerioko HIESaren aurkako Plan Nazionalak VIH birusa dutenen errejistroa sortzeko legea onartu berri du. Errotatzoko kide batek prentsaurrekoan azaldu zuenez, "proiektu honen zirriborroan esaten zenez, errejistroan izen-abizenak, adina, sexua, sexu-joera, seropositiboa izatearen arrazoia (gartzelan egoteagatik, homosexuala izateagatik, droga kontuengatik,...) etab. agertuko dira".

Gaiaren larritasunaz ohartuta, Euskadiko HIESaren aurkako elkarte gehienak Plan Nazionalaren arduradunarekin bildu ziren. "Berak esan zigun, ganorazko prebentzio kanpainak egin ahal izateko, gaur egun VIH birusa nola, nork, zergatik etab. hartzen den jakitea beharrezkoa dela". Euskadiko HIESaren aurkako elkarteek ez dute inolako zerrendarik egiterik nahi, "gaia atzeratu egin behar zela argi utzi genuen". Daniel Zulaika, Euskadiko Drogen aurkako Planaren arduradunarekin ere hitz egin zuten. "Zerrenda kodifikatua izango zela esan zigun baina elkarte guztiek ezezkoa eman genuen". Hala ere, azaroaren 2an berriz bildu eta "zur eta lur geratu ginen zerrendarena onartu egin zela esan zigun". Urtarriletik aurrera seropositibo berri



guztiak agertuko dira errejistroan. "VIH probaren anonimotasuna errespetatuko dela diote baina ondoren egin behar den analisiaren datuak ez dira konfidentzialak izango. Izena agertuko da, abizenen inisialak, adina, sexua etab". Errotatzokoen ustez, VIHa dutenen Eskubide Unibertsalen Deklarazioaren 6. eta 7. puntuen aurka doa (anonimotasuna eskubidea aitortzen dute), "kontrolerako tresna bat besterik ez da. Zer axola dio VIH birusa duen pertsonak zein izen daukan?". Errotatzokoen errejistroaren kontua salatzeke ekintzak antolatu dituzte, "baina legea onartua dago eta badakigu oso zaila izango dela atzera botatzea".



## Oso harrera ona izan du Tangoaren Asteak

Joan den ostegun eta ostiral gauak, tangoari eskainitako gauak izan ziren. Ostegunean, Ongarri Zine Klubeko Iñaki Soartek eta Haritz Dantzari Taldeko J. I. Sarasuak Tangoaren Astearen aurkezpena egin zuten. Ondoren, Iosu Mujika dantzariak tango dantza saio polita eskaini zuen 'Tango' pelikularen emanaldiaren aurretik. Saioan 200 lagun

elkartu ziren. Ostiralean, berriz, 'Tangoneando' ikuskizuna izan zen. 300 ikusle baino gehiago elkartu ziren eta antolatzaileak "oso pozik" daude bi saioek izandako harrerarekin. Sarasuak komentatu digunez, "Tangoneando ikuskizunean parte hartzen duten musikariak maila handikoak dira eta ikusleek jakin zuten apreziatzen. Zenbait pertsona dantza saioa ikusteko asmotan joan ziren baina orokorrean, jendea oso gustura geratu zen".



## 30 kontu korrante baino gehiago daude Ertamerikarako diru-laguntza emateko

Pilar ikastetxea, Cáritas, Gurutze Gorria, Medicus Mundi, Mugarik Gabe eta beste elkarte eta ONG ugari ari dira diru-batze kanpainan

**D**agoeneko askok jakin-go duzuen bezala, herriko hainbat erakunde eta elkarte Ertamerikarako diru batzen ari dira. Elgoibarren, beste herrietan bezala, kontu korrante ugari ireki dira ia aurrezki kutxa guztietan. Dirua biltzen ari diren erakundeetarako batzuk Elgoibarko Gurutze Gorria, Cáritas eta Pilar ikastetxea dira. Gurutze Gorritik esan digutenez, herritar asko bertara ari dira deitzen “baina diru laguntza guztiak Banco Guipuzcoano, Bankoa, Kutxa edo Caja Laboral/Euskadiko Kutxa ireki ditugun kontu korranteetara eramateko eskatzen diegu. Ertamerikan diru premia dute orain. Ez dugu janari edo jantzirik bidaltzen hegazkin bat fletatzea garestia baita, eta bertako aduanak pasatu orduko, laguntza berandu heltzen da. Horregatik hobe da dirua bidali eta bertan erostea behar duten guz-

tia”. Cáritas-ek, bere aldetik, bi kontu korrante dauzka irekita Kutxan eta Euskadiko Kutxan. Bai Cáritas-ek bai Gurutze Gorriak Elgoibarren zenbat diru batu duten ez dago jakiterik, bien kasuan, kontu korrante guztiak Gipuzkoa mailakoak baitira.

Diru-bilketan ari den beste erakunde bat Pilar ikastetxea da. Zuzendariak esan digunez, “hilaren 4an, ikastetxeko zuzendaria izan zen Jose Ramon Zudaireren premiazko faxa jaso genuen Hondurasetik. Jutiapako eskualdean dago eta diru-laguntza premian zeudela esaten zigun”. Honela bada, egunean bertan orri bat banatu zuten ikasleen artean bakoitzak ahal zuena eman zezan. Hurrengo goizean, 400.000 pta. batu zituzten. Bi egun beranduago 700.000 pta. batu ziren eta atzo goizerako (hilak 12) milioi bat pta-tik gora zegoen. “Hasieran ikastetxeko jen-

dearengana bakarrik jo genuen, baina notizia herrian zabaldu da eta orain herritarrak ere ari zaizkigu etortzen dirua emateko”. Elgoibartarren elkartasuna eta eskuzabaltasuna ikusita, Pilar ikastetxekoek kontu korrante zenbaki bat irekitzea erabaki dute herritarren donazioak jasotzeko. “Emozionatuta gaude, ikasliak, familixak eta herritarrak zelan bolkatu dian ikusitxa. Batu-

tako dirua gure misiolarien eskuetara doa zuzenean eta bertakoek behar dituzten gauzak erosteko erabiliko dutela esan digute”. Urtean zehar, SERSO izeneko ONGaren bidez, hainbat kanpaina antolatzen dituzte ikastetxe honetan. “Botika bilketa, eskola-material bilketa etab., Afrikara bidaltzeko izan dira orain arte baina aurten Ertamerikara bidaliko ditugu”.

### DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ZENBATI KONTU KORRANTE

▣ **CÁRITAS Euskadiko Kutxa 060.0.09900.0**  
**Kutxa 000.0.06269.5**

▣ **PILAR IKASTETXEA Kutxa 007.1.00837.6**

▣ **GURUTZE GORRIA**

**Kutxa 001.0.19697.0**

**Euskadiko Kutxa 050.0.04605.6**

**Banco Gipuzcoano 011.0.03260.8**

**Bankoa 001.0.30367.2**

▣ **MUGARIK GABE Euskadiko Kutxa 026.1.08092.6**

▣ **MEDICUS MUNDI Euskadiko Kutxa 064.0.03568.6**

\* Hauek adibide batzuk baino ez dira. Aurrezki kutxa eta banketxe guztietan kontu korrante ugari daude irekita.



### 140 gaixo eta elbarritu elkartu ziren Parrokiko Osasun Pastoralak antolatutako topaketetan

Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia, Zumaia, Orio eta Donostiako 140 gaixo, elbarritu eta laguntzaile elkartu ziren joan den domekan Parrokiko Osasun Pastoralak antolatzen duen topaketak edo konbiventzietan parte hartzeko. Eguraldi eguzkitsua eta epela zegoen, eguna ondo pasatzeko ezinbesteko faktorea. Honez gain, umorerik ez zen falta izan gaixo eta elbarrituen artean. Eguerdiko 12:30eko mezaren ostean, erretratua atera genuen eliza osteko parkean txiste eta barreen artean. Ondoren, 140 lagunek Jubilatutako Etxean bazkaldu zuten eta jakin dugunez, baten batek irrintzi luze bat botatzeko adorea ere izan zuen trikitiaren eta panderoaren doinuak aberastuz. Parrokiko Osasun Pastoralak eskerrik beroenak luzatu nahi dizkie elkarte gastronomiko guztiei, Eroskiri eta Aitz-Bizkar edari-banatazaileari.



## Ideia programa jarri du martxan DEBEGESAK

Deba Beheko emakume langabetuak lan munduan sartzeko helburuarekin sortu da

“**I**txi begiak, imajinatu, zabaldu begiak, ideia...”. Honako hau da IDEIA programaren eslogana. DEBEGESAK bultzatua, Europar Komunitatearen NOW programaren barruan kokatzen da.

Deba Beheko langabetu tasaren %60a emakumeek osatzen dute eta lanean dauden asko eta asko hirugarren sektorean ari dira eta lan baldintza oso txarretan. Egoera hau kontuan izanik eta irtenbideren bat topatu nahian sortu zen Ideia programa.

### Nori dago zuzendua

18 urtetik gora duten emakume guztiei zuzendua dago, ikasketak dituztenei eta baita ikasketarik ez dituztenei ere. Ondoren aipatuko ditugun puntuekin bat datozen guztiek har dezakete parte:

- Lan egoera aldatu nahi duten emakumeak.
- Noizbait ideiarekin bat edo ilusioaren bat izan baina, arrazoi pertsonal edo profesionalak direla eta, ideia hori aurrera eramanez ezin duten emakumeak.
- Beste emakume batzuen jakinmin eta esperientziak ezagutu eta horietan parte hartu nahi duten emakumeak.
- Azken batean, beraien ideiak eta



ilusioak proiektu bihurtu eta martxan jarri nahi dituzten emakumeak.

### Ideia Tailerrak

Programa eskuragarria egin nahi dute, eskualdeko emakume guztiek izan dezaten aukera parte hartzeko. Horrela bada, herri desberdinetan tailerrak antolatu dira eta elgoibartarrek, esaterako, Elgoibarren bertan izago dute kokatua euren tailerra.

Tailer hauen helburua, emakumeen sormena bultzatu eta garatzea da, beraien interesak eta ilusioak kontuan hartuz, landuz eta proiektuak sortuz. Horrez gain, emakume bakoitzaren behar eta nahien arabera hezkuntza izango da, profesionalen aholkularitza zuzenarekin eta ideia bakoitza martxan jartzeko eman beharreko pausoak neurtuz eta zehaztuz.

### Nora jo

*Ideia* programan parte hartu nahi duenak Udaletxera edo DEBEGESAK Eibarraren duen egoitzara jo dezake. Irailean jarri zen martxan eta 1999ko irailera bitartean aukera egongo da parte hartzeko. Momentuz 59 emakume eman dute izena eta berehala da hastekotan lehenengo tailerra.

### ● San Pedro auzoan uholdeen kontrako proiektua martxan

Azken urteotan, Elgoibarren uholde arrisku handia dagoen gune edo puntu beltzak ekiditeko proiektuak aztertzen eta martxan jartzen ari da Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aldundiarekin elkarlanean. Orain arte, San Migeleko errekaaren ibilbidea aldatu eta hobetu da eta San Lorentzoko erreka laister hasiko dira obrak. San Pedro auzoa da geratzen den azken puntu beltza eta, dirudienez, hasi dira lehen saioak. Izan ere, pasa berri den astean aipaturiko auzoari buruzko azterketa zein enpresaren esku lagako duten erabaki behar zuen Udala Hirigintza Batzordeak eta urte amaierarako proiektua bukatuta egotea espero da. San Migel, San Lorentzo eta San Pedro auzoen egoera hobetu eta gero, hurrengo pausoa Deba ibaiak Elgoibarren sortzen duen uholde arriskua orokorrean zein den aztertzea litzateke.

### ● EAEko lehendakaria izango da Erreminta Makinaren Museoaren inaugurazioan

Oraindik data zehaztu gabe dagoen arren, azaro amaieran izango da Erreminta Makinaren inaugurazio ekitaldia. Jakin ahal izan dugunez, EAEko lehendakaria izango da bertan eta, horrez gain, erreminta makina sektoreko hainbat pertsonaia garrantzitsuri omenaldia egingo zaio.



# ARRREN

LIko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 48. GEHIGARRIA



azko ikasturtean bezala, Herri Eskolako 6. mailako ikasleak Murtzian egon dira astebe-  
tez, "Escuelas Viajeras" deitzen den proiektuan parte hartuz. Besteak beste, ondorengo ekintzak izan dituzte astean zehar: kontserba lantegi batean nola lan egiten duten ikusi, mehategiak bisitatu, "norria" baten funtziona-

menduaren azterketa eta abar. Proiektu honen helburua, beste autonomietako ikasleekin harremanetan jartzea eta elkar ezagutzea da, horrekin batera toki bakoitzeko ohiturak ezagutzuz.

Aurten, Segovia eta Guadalajarako ikasleekin egon dira Murtziara.

## Tristeza

Andre zahar bat, gazte-gazte jantzita, medikuarengana doa:

- Zer sentitzen duzu, ba?— galdetzen dio medikuak.
- Etengabeko zorabioak.
- Zenbat urte dituzu?
- Hogeita hamabi, jauna.
- Orduan, amnesia ere baduzu gainera.



## Jakitunen eskutik

### Arazoak janariarekin

**H**aurrek urte bat betetzen duenean, denetik jaten hasten da eta garai horretan hasten dira, baita ere, arazoak janariarekin. Batzuek egunero gauza bera jan nahi izaten dute eta beste batzuek beraien elikadurarako beharrezkoak diren jakiak baztertu egiten dituzte. Askok, txutxeria eta litxarreriak bakarrik nahi izaten dituzte eta bazkaltzeko orduan ez dute goserik izaten.

Ez da erraza soluzio bakarra ematea, kasu bakoitza berezia baita. Azken batean, onena pazientzia izan eta umearekin ez haserretzea da.

Platerera ateratakoa ez badu osorik jaten, platera kendu mahaitik garrantzirik eman gabe. Izan ere, janariari garrantzi asko ematen diozula konturatzen bada haurra, txantaia egiteko erabil dezake eta honek gauzak okertu baino ez luke egingo. Jatorduetatik kanpo ez eman ezer jateko eta saiatu zaitez gustuko dituen gauzak jartzen noizean behin. Esaterako, ez bazaio gustatzen zopa ez derrigortu platerkada osoa jatera. Jan ditzala pare bat goilarakada eta jarraian emaiozu gustuko duen beste zerbait. Horrela, gustuko ez dituen gauzak jaten ohituko da. Beste ideia on bat da gustatzen ez zaizkion janari

horiek mozorrotzea edo antzeko bitaminak ditzuten beste batzuegatik ordezkatzea.

- Esnea gorroto badu, emaiozu zereal, gaileta edo kakaoarekin nahastu eta irabiatua. Edo, nahiago badu, har ditzala yogurra, gazta, natilak edo bestelako esnekiak.

- Ez badu okelarik nahi, txikitu eta tomatearekin eman iezaiozu, edo albondigak egin... Noizean behin arraina, lekariak edo urdai azpikoa ere eman.

- Arraina ez bazaio gustatzen, albardatua edo ogi xehetuarekin prestatua eman edo patata purearekin, tortilarekin, gaztarekin... Hala ere, ez badu jaterik nahi, aurretik aipatutako jatekoekin ordezkatu.

- Lekariak iguina ematen badiote pure eginda eman, gaztarekin, krocketan prestatua, entsaladan, pastarekin...

- Fruta ez badu jaterik nahi zumoan, mermeladan, txokolatearekin edo yogur naturalarekin nahastua eman. Oso goxok dira, baita ere, sagar tortilak, fruta tartak, platano albardatua edo sagar egosiak.

**Iturria: Crecer aldizkaria.**

## Zer iritzi daukazu ..... *Guggenheim* ..... ari buruz?



Joan naiz eta oso koadro arraroak ditu eta batzuk oso zatarrak dira. Politena, txakurra eta laberintoa dira.

CARLOTA CASTRILLO, 10 urte



Oso polita eta kulturala da baina gaur egun gauza sinpleei "artea" deitzen zaie. Nik ez ditut ulertzen.

ANTTON EZENARRO, 13 urte.



Oso handia da, ikurrin asko ditu eta Titanic-en itxura du.

MIKEL AROSA, 7 urte






JAKOB  
BILBATUA  
11 urte

## Galde debalde

- Zeren asmatzailea izan nahi zenuke?
- Zer egingo zenuke alkatea bazina?
- Zein da gustukoena duzun ogitartekoa?
- Zer egiten duzu larunbat arratsaldeetan?
- Zertaz mozorrotuko zenuke irakaslea?
- Maiteminduta al zaude?
- Zein ikasgai nahi zenuke izan eskolan?
- Zer egingo zenuke loteria tokatuko balitzaizu?



NEREA  
LAZKANO  
8 urte

- 1- Kotxiana.
- 2- Etxe asko eta merkiak eta jolasteko lekuak.
- 3- Urdai azpikuana.
- 4- Patinetan eta futbolian ibili.
- 5- Tximuaz.
- 6- Ez, oin ez, baina egon izan naiz.
- 7- Autoa gidatzeko karneta etaratzeko klasiak.
- 8- Kotxe on bat erosi, Porsche bat.

- 1- Jolasena.
- 2- Herrixan jolas-denda gehixo zabaltzeko esango nuke.
- 3- Txokolata ogixakin.
- 4- Gurasuekin kalera urten edo beste herri batera jun.
- 5- Pailazoz.
- 6- Ez! Txikiegia naiz ondiokan.
- 7- Jolas berririk ikasteko zeozer.
- 8- Jolasak eta bizikleta bat erosi eta zeozer gurasuei eman.

## Zer da *bakea*.....?

MAITE MORENO 7 URTE



"Ixilik eta trankil egotea".

IKER RODRIGUEZ 11 urte



"Lagun batzuk borrokatu eta gero eskua ematen direnean bakea dago".

JON ANDER AVILA 7 URTE



"Nirekin inor sartzen ez denean".

MAITANE HUIDOBRO 9 urte



"Maitasuna egoten den lekuan, gerrarik ez dagoen lekuetan eta ez dugunean hiltzen dagoena".

ION RODRIGEZ 9 URTE



"Denak lagunak izatea eta gerrarik ez egotea".


DAFNE LEO 11 urte



"Nire anaia txikia lasai dagoenean etxean sentitzen dena".

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Zer da hau?



## 2. Zer galdetu diegu?




**NEREA AYESTA**  
7 urte


"Diru asko aberatsa izateko. Etxiak erosiko nitxun eta lapurrak sartzen bazian gauza berriak erosteko dirua eukiko naban".

**EDUARDO CÁRDABA**  
12 urte

"Bakea eta zorientasuna egoteko mundu osoan. Gosea desagertarazteko eta jende guztiari gustuko lana eskaintzeko".



## 3. Bete ezazu domino hau!



## 4. Asmakizunak

— Zer da ahorik izan gabe zuk esaten duzuna esaten duena?

— Beti geldi beti urduri lo daude egunez esnaturik gaez.

— Burua badu ez da aberea. Bizarra ere bai eta ez da gizakumea.

*Karlos Ansola elgoibartarrak 41 urte ditu eta ekonomika ikasketak egin zituen. Duela 17 urte hasi zen irakasle Elgoibarko Herri Institutuan, garai hartan Mekanika bezala ezagutzen zen zentroan. Urte hauetan guztietan, administrari batzordekoa izan da, administraria, idazkaria eta azken bost urteotan zuzendaria. Ikasturte honetan Kalitate kontrolaren arduradun lanean hasi da. Karlosekin izan gara Mekanika eta Institutua bezala ezagutzen diren ikastetxeen bateratze prozesuaren eta aipaturiko kalitatearen inguruan hitz egiteko.*

**KARLOS ANSOLA**

## “2000. urterako ISO 9002 kalitate agiria eskuratu nahi dugu”

– 1993-94 ikasturtean ekin zenioten bi ikastetxeen bateratze prozesuari. Zergatik?

- Alde batetik Lanbide Heziketarako Eskola (mekanika) zegoen eta, bestetik, Institutua. Garai hartan HSAOL (LOGSE) martxan jartzekotan zen eta ikusi genuen askoz hobea zela bi ikastetxeak elkartu eta hezkuntza proiektu bateratua eskaintzea konpetentzian ibili baino. Bateratze ofiziala 1997-98an izan zen baina praktikan lehenago hasi ginen funtzionatzen zentro bakarra bagina bezala.

– Gaur egun nola daude banatuta bi zentroak?

- Institutuan DBHko ikasleak daude eta Bernardo Ezenarron, edo Mekanikan, hiru batxilergoak eta lanbi-

de heziketa. Institutuan 170 ikasle inguru daude eta beste 500 baino gehiago.

– Bost urte pasa dira hasi zinetenetik. Zein da gaur egungo filosofia?

- Hasi ginenean nahiko argi bereizten zen Institututik etorritakoen eta gure artean aldea zegoela, filosofia desberdina geneukala. Guk enpresa munduarekin nahiko lotura handia geneukan eta praktikoagoak ginen, institutukoak, aldiz, intelektualagoak edo. Hala ere, argi dago horrelako prozesu bat aurrera eramateko ideia eta filosofiak ere bateratu behar direla eta hor, azken batean, beste gauza guztien gainerik pertsonak daude. Hau da, pertsonen artean ez badago harreman onik, ez badago konpliziterik, ez

badago elkarlana bultzatzeko gogorik, alferrik da. Zentroen fusioa gertatzeko, beharrezkoa da aurretik pertsonen arteko fusioa gertatzea. Zentzu horretan gure fusioa ereduia izan da beste zentro batzuentzat.

– 1998-99 ikasturtean izango du estrainezko Herri Institutuak zuzendari bakarra, ezta?


- Bai, hala da. Orain arte, nahiz eta hezkuntza proiektu bateratua izan, ni izan naiz Mekanikako zuzendaria eta Angel Ugarteburua Institutukoa. Aurten, aldiz, Iñaki Kondek hartu du zuzendaritza orokorra.

– Une honetan zein fase-tan zaudete?

- Badira urte batzuk hasi ginela kalitatearen gaia lantzen eta prestatzen. Hau da, programazio bat egin behar da, hezkuntza prozesua bateratu, irakasleen betebeharrak zein diren zehaztu... Azken batean, hezkuntza sistematizatu egin behar da eta dena, funtzionatzeko era, idatziz jaso.

– 2.000 urterako ISO 9002 lortu nahi duzue.

- Hori da gure erronka. ISO 9002 zertifikatua eskuratzeko 20 puntu bete behar dira eta puntuak zehazten eta idazten gabiltza. 2.000 urterako lortu nahi genuke. Zailena, irakasleei kalitatearen gaia eta funtzionatzeko era hau egokiena dela sinestaraztea da. Guztiok onartu behar dugu funtzionamendua, gero, esperientziak erakutsiko digu zein diren hobe beharreko puntuak.







**Odilio Atrio**

Orain dela 5 edo 6 urte, Elgoibar laga eta gurasoen jaioterrira joatea erabaki zuen. Familia Ourenseko San Lorenzo de Piñor herri-

koa da eta txikiak zirenean gurasoak eta 5 seme-alabak Elgoibarrera etorri ziren. Duela urte batzuk, hemengo lan egoera kaxkarra ikusita, Odilok etorkizun hobearen bila San Lorenzo de Piñor-era joatea erabaki zuen. Hiriburutik, Ourensetik oso gertu dago Piñor, bertan dagoen auzoa dela esan daiteke, mendi malda batean kokatua.

Galiziara iritsi eta bizitza berri bati ekin zion Odilok. Batean eta bestean era askotako ikastaroak egin izan ditu. Orain, zilarra lantzen ikasten ari da, bitxidendaren batean lana topatzeko esperantzaz.

Bakarrik bizi da, familiak duen etxe batean. Ortua dauka eta berak ereindako barazkiak batzea eta jatea asko gustatzen zaio, baita mendira joatea ere perretxiko bila. Jakin dugunez, zaletasun bitxi asko ditu Odilok. Kolore bizietako hariekin kometak benetan politak egiten ditu eta bastoiak edo makuluak ere lantzen ditu eskuz.

Elgoibarrera oso gutxitan etortzen da. Elgoibarko familia San Lorenzo de Piñor-era senitartekoak bisitatzera joaten denean izaten dute elkarren berri. Galizian gustura bizi den seinale. Momentuz bertan bizitzen jarraitzeko asmoa dauka.

## M<sup>a</sup> Josefa Arakistain Agirregabiria

(1918-1984)



- 1918ko martxoaren 3an jaio zen Itziarko Endoixa auzoan, Txortxikua baserrian.
- 5 anai-arrebetatik gazteena zen. Orduko neskatila guztiek bezala, familiari laguntzea izaten zen bere zeregin nagusia: etxeko lanak, baratze-koak, etab.
- Denboraldi batez Zestuako hotel batean neska-me aritu zen.
- Orduko ohiturei jarraituz, erromerietara joaten zen, Lastur, Itziar eta inguruetara. ‘Hijas de María’ kongregaziokoa zen.
- Neskatila gaztea zela Madrilerara joan zen, gaztelaniaz hitz erdi ere jakin gabe. Madriletik bueltan, Santi Urainekin ezkondu zen Mendaroko Alkorta baserrira eta 8 seme-alaba izan zituzten.
- Familia handia zuen Josefak, beraz, makina bat lan egitea tokatu zitzaion.
- Beranduago, San Lorentzo auzoko Ibarrenea baserrira etorri ziren eta segituan ‘Bar Alkorta’ jarri zuten San Frantzisko kalean, gaur egun ‘Pub’ a dagoen tokian.
- Sona handiko taberna eta jatetxea zen. Sukaldean aritzen zen jo eta su. Sarritan 230 bazkari ere prestatu behar izan zituen. Bezero ugari zeuzkan taberna honek. Lan handia izaten zen azoka egunetan, herriko jaietan eta batez ere San Isidro Egunean. Diskoteketan parte hartzen zuten abeslariak joaten zitzaizkion tabernara. Behin Patxi Andiñon izan zen bertan.
- Taberna itxi zen eguna oso hunkigarria izan zen Mariarentzat. 1978ko abenduaren 31n, 20 urtez negozioarekin aritu eta gero, taberna itxi zuten. Mauxitxa txaranga ere bertan izan zen.
- Josefa baino, Maria izenez zen ezagunagoa. Sukaldari trebea, langilea, familia girokoa, borondatsua eta sinesmen handikoa zen. Irakurtzea ere oso gogoko zuen.
- 1984ko martxoaren 19an hil zen 66 urterekin.

Juanito Gorostiza

**KAROBI**  
**TABERNA**

**ELGOIBAR**

Tel. 943 74 06 37  
San Frantzisko, 37

**Lanbroa**

Pedro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOIBAR



**bidai agentziak  
babestutako atala**

Foruen plaza, 3  
Tel: 943 74 39 12



Argazki hau 1931 urtekoa da eta **Juanita García**k laga digu. Bertan agertzen direnak **Beatriz Aizpirik** zuzendu zuen 'El alcalde ínterin' izeneko antzezlanean parte hartu zutenak dira. Argazkia zaharra da eta logikoa den bezala, gehienak hil da daude. Hala ere, badira oraindik bizirik daudenak.

Atzetik hasita, ezkerretik eskumara: **Carmen Zubizarreta** (†), **Juanita Ansola** (†), **Juanita García**, **Rosario Bereziartua** (†), **Juanita Zubizarreta** (†) eta **Sor Ramonita Egiguren** (†).

Bigarren ilaran: **Maritxu Abascal** (†), **Ines Ezenarro**, **Ines Unzilla** (†), **Jesusa Arriola** (†), **Maria Larreategi** (†),

**Teodora Gurrutxaga** (†), **Remedios Bereziartua**, **Maritxu Aizpiri** (†) eta **Maria Agirre 'Meliton'** (†).

Hirugarren ilaran jarrita: **Elvira Rojo**, **Pakita Ondarre** eta **Luisa Abascal** (†).

Lurrean: **Maritxu Garate** (†) eta **Miren Zubizarreta** (†).



**Bulcartu S. Coop.**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

**BOUTIQUE DEL PAN**

**Enpanadak**

**Enbutidoak**

**Baserriko ogia**

**Bolleria**

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74 33 92



BEHOBIA-DONOSTIA

**Elgoibartarrek errekorra hautsi dute aurten partaidetzari dagokionean**

69 elgoibartarrek eta 3 mendarotarrek hartu dute parte

**S**ekula baino elgoibartar gehiagok hartu du parte aurtengo Behobia-Donostia lasterketa herrikoian. Lasterkari asko, 55 bat lagun, Udal Kirol Patronatuak antolatutako autobusean joan ziren eta beste asko euren kontura. Eguraldi aparta izan zen, nahiz eta bero gehiegi egin zuela ere entzun diogun baten bati. Iaz bezala, helmugara iritsi zen lehen elgoibartarra Jose Antonio Ruiz izan zen 1:13:16ko denborarekin. Honen ostean, markarik onena egin zuena Iñaki Jaio presoa-



*Argazkian, Udal Kirol Patronatuak antolatutako autobusean joan ziren korrikalariak Behobiako irteeran prest.*

ren izenean parte hartu zuen Jesus Larrañaga mendarotarra izan zen (1:14:26). Jarraian agertzen den taulan lasterketan izan ziren 69 elgoibartarren eta 3 mendarotarren denborak eta kategoria bakoitzean egindako postua agertzen dira. Fortuna Klubak emandako sailkapena da. Era berean, Fortunako antolatzailleek esan digutenez, sailkapenari buruzko erreklamaziorik egin nahi izanez gero, idatzi bat bidali behar da '856 P.K., Donostia 20.080' helbidera.

**SAILKAPENA**

Izena	Denbora	Postua/kategoria	Izena	Denbora	Postua/kategoria	Izena	Denbora	Postua/kategoria
<b>ELGOIBARTARRAK</b>			25- Asier Sasiain	1:38:44	(924 B)	50- Iñigo Irusta	01:53:44	(2300 C)
1- Jose Antonio Ruiz	1:13:16	(58 B)	26- Ion Arrizabalaga	1:38:50	(36 K)	51- Asier Urresti	1:55:01	(1679 B)
2- Asier Arrieta	1:19:27	(156 B)	27- Iñigo Ansola	1:39:28	(1293 C)	52- Juan Kruz Sasiain	1:55:21	(2381 C)
3- Iñigo Etxaniz	1:19:39	(195 C)	28- Andoni Segundo	1:40:30	(565 D)	53- Felix Ezkurra	1:55:47	(1694 B)
4- Juan Fernández	1:20:41	(35 E)	29- Iñaki Arrieta	1:40:44	(578 D)	54- Alex Legorburu	1:55:48	(1696 B)
5- Tomas Arrieta	1:22:23	(235 B)	30- Jesus M. Lersundi	1:40:44	(578 D)	55- Unai Argarate	1:55:55	(1701 B)
6- Javier Fernández	1:23:54	(285 B)	31- J. Ignacio Izagirre	1:41:31	(601 D)	56- Ana Casquero	1:56:02	(191 L)
7- Imanol Larrañaga	1:25:34	(424 C)	32- Alex Galarraga	1:42:09	(1090 B)	57- Eduardo Uribe	1:57:07	(1736 B)
8- Iñaki Izagirre	1:25:38	(343 B)	33- M. Eugenia González	1:43:14	(23 M)	58- Xabier Bastida	1:59:01	(2558 C)
9- J. Ramon Ortuoste	1:25:41	(432 C)	34- Isabel Ruiz	1:43:15	(47 K)	59- Carlos Eizagirre	1:59:54	(2596 C)
10- Ibon Gabilondo	1:26:56	402 B)	35- Iñigo Belaustegi	1:43:41	(1609 C)	60- Gloria Santiago	2:03:33	(84 M)
11- Roberto González	1:26:57	(404 B)	36- Fernando Bautista	1:45:02	(1245 B)	61- M. Jose Estibariz	2:03:44	(128 M)
12- Asier Orbea	1:27:02	(48 B)	37- Pablo Barrenetxea	1:45:20	(1265 B)	62- Borja Uriarte	2:04:16	(1892 B)
13- Aitor Ibabe	1:27:13	(415 B)	38- Urtzi Alkorta	1:46:44	(1325 B)	63- Arkaitz Irureta	2:05:31	(1904 B)
14- Joseba Agirrezabala	1:27:26	(528 C)	39- M. Pilar Iranzo	1:48:42	(110 L)	64- Mikel Parada	2:13:16	(1980 B)
15- Ekaitz Isasi	1:29:56	(548 B)	40- Mario Iranzo	1:48:42	(1979 C)	65- Daniel Rino	2:13:17	(2917 C)
16- Ignacio Pérez	1:30:20	(269 D)	41- Pilar Lama	1:48:58	(44 M)	66- Rosa M. Mata	2:14:36	(53 O)
17- Aitor Kapanaga	1:30:42	(736 C)	42- Francisco Iglesias	1:49:32	(82 G)	67- Anselmo Bigala	2:15:01	(2943 C)
18- Mikel Arriola	1:34:06	(716 B)	43- Jesus M. Makazaga	01:50:53	(2120 C)	68- Alicia Iglesias	2:15:02	(217 K)
19- Tomas González	1:34:32	(369 D)	44- Constan Nuñez	1:50:56	(2124 C)	69- Martin Dominguez	Deskalkifikatua	
20- Iñaki gorosabel	1:34:55	(998 )	45- Enrike Antxustegi	1:51:09	(2141 C)			
21- Pilar Arriola	1:35:08	(23 L)	46- Hugo del Amo	1:51:50	(1556 B)	<b>MENDAROTARRAK</b>		
22- Eduardo Santos	1:35:39	(1049 C)	47- Javier Agirrebeña	1:51:51	(2193 C)	1- Iñaki Jaio	1:14:26	(81 C)
23- Danel Bastida	1:37:03	(845 B)	48- Carlos Aiesta	1:52:59	(2259 C)	2- Iker Mayora	1:19:48	(6 A)
24- Iñigo Aranbarri	1:38:04	(899 B)	49- Alberto Mujika	1:53:15	(2278 C)	3- Agustin Larrañaga	1:27:26	(527 C)



## Karakatera V. igoera zapatuan, hilak 14, izango da

Marka onena (29'43") J. M. Fernandez elgoibartarraren esku dago

Aurreko lau urteotan bezala, Plaza Handian emango zaio hasiera Urgazi Triatloi Taldeak, Morkaiko Mendizale Elkartearen laguntzaz antolatzen duen Karakatera Igoeraren bosgarren edizioari. Irteera goizeko 10:30ean izango da. Izen-emateak egunean bertan egin ahal izango dira, probaren hasiera baino ordu erdi lehenago. Lasterketak interes berezia izango du, Jose Mari Fernández Suso elgoibartarra eta Juan Aldai eibartarra nor baino nor arituko baitira Karakatera lehenengo lekuan iristeko. Iaz Juan Aldai izan zen Karakaten nagusi, baina ezin izan zuen duela bi urte Fernandezek ezarritako marka hautsi: 29'43".

Eibartarrak 17 segundo gehiago egin zituen, 29'59" hain zuzen. Emakumezkoen artean, Pilar Arriolak proba honetan erakutsi duen nagusitasuna azpimarratzekoa da. Bestalde, Antonio Fernandez elgoibartarrak, helduen marka hobetu zuen iaz.



Lehia gogorra izango da bi korrikalari hauen artean. Ezkerrean, Fernández elgoibartarra eta eskuman, Aldai eibartarra.

Korrikalari guztiak Karakateko buzoira iritsi bezain pronto, sari banaketari ekingo zaio. Hiru kategoria egongo dira: sailkapen nagusia, emakumezkoak eta helduak (50 urtetik gorakoak). Partaidetzari dagokionean, aurreko edizioetan bezala, 12 lagun inguruk parte hartzea espero dute antolatzaileek.

## Ibai Kirol Elkarteak, Aviles-eko judo torneoko txapeldunordea



Ibai Kirol Elkarteak, 81 eta 87 urtetan jaiotakoak, Aviles-eko (Asturias) Nazioarteko Judo Torneoan izan ziren urriaren 31tik azaroaren 1era bitartean. Portugal, La Coruña, Asturias-eko selekzioa, El Ferrol, Gijón, Gasteiz, Bilbo, Avilés eta Ibaiko judoek hartu zuten parte. Maila handia erakutsi zuten guztiek, Espainiako txapeldun eta medai-

lista ugari baitzuden. Banaka, 9 domina eskuratu zituzten elgoibartarrek: jubiletan, Egoitz Morak zilarra. Brontzezkoa Zuhaitz Azpiazuk, Alex Sanchezek, Aitzol Arrospeiek eta Iker Pagolak. Aitor Mugerzak infatiletan, eta alebinetan,

berriz, Aitor Gonzálezek, Josu Tellabidek eta Fernando Pazmiñok brontzezkoa eskuratu zuten. Roberto Pazmiño laugarren postuan geratu zen. Taldeko finalean Asturias-eko taldearen aurka 2 eta 3 galdu zuten Ibaikoek, txapeldunordeak izan zirelarik. Bestalde, Aitor Mugerzak Gasteizko taldearekin zilarrezko domina lortu zuen.

## EMAITZAK

### Futbola

Haundi 0 - Burgos 2  
Elgoibar 0 - Zumaiako 0 (1. erreg.)  
Pedrusko 8 - Hamaika Bat 0 (2. erreg.)  
Elgoibar 4 - Cruces 1 (L. N. jub.)  
Pasajes 1 - Elgoibar 1 (1. jub.)  
Hamaika Bat 9 - Elgoibar 1 (Kad.)  
Elgoibar 2 - Aizkorri 1 (Inf.)  
Elgoibar 2 - Antoniano 1 (Neskak)  
Elgoibar 2 - Antoniano 1 (Neskak)  
Lemoa 2 - Haundi 0 (Kopa)

### Futbitoa

S. Braga 3 - Los Peñaskos 2  
Kunta Kinte 2 - Los Herminios 12  
PSK 6 - Aide Globun 0  
Berrogei Duro 6 - Aizkorak Mendibil 2

### Areto Futbola

Zur Ta Lur Elg. 2 - Lim. Antoñana 7 (1. maila)  
Zur Ta Lur Elg. 4 - Puer. Pasaia 3 (Auton.)

### Xakea

Elgoibar A 2,5 - Legazpi A 1,5 (1. maila)  
Elgoibar B 2 - Eibar B 2 (1. maila)  
Elgoibar C 2,5 - Eibar C 1,5 (2. maila)

### Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIKO jokalarierregularraren 98/99  
JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Eneko .....	21
2- Beitia .....	18
3- Iker Leonardo .....	15
4- Aitor Trebiño .....	13
5- Elkoro .....	9
6- G. Leonardo .....	8
7- Igor .....	7
8- Txasio .....	7
9- Madina .....	7
10- Díaz .....	7
11- Muguruza .....	6
12- Loren .....	5
13- Caro .....	5
14- G. Lazaroaster .....	1

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 14  
17:00 Haundi - Binefar  
Igandea, 15  
12:00 Elgoibar - Beraun (1. jub.)  
15:30 Elgoibar - Aloña Mendi (Kad.)  
17:15 Pedrusko - Antzuola (2. erreg.)

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 14  
16:00 Pagoaga Elg. - Arrate (Kad. nes.)  
17:30 Unceta Elg. - Arrate (Jub. nes.)  
19:15 IMH Elg. - Hondarribi (Senior mut.)

### Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 15  
9:00 Mencilo - S. Braga  
10:00 Aizkorak Mendibil - PSK  
11:00 Aide Globun - Lojantzi  
12:00 Los Herminios - Berrogei Duro  
13:00 Los Peñaskos - Kunta Kinte

### ● Hurrengo partidua irabazi egin behar du Haundik Kopan jarraitzeko

Asteazkenean, hilak 11, Federazio Kopako finalaurreko lehenengo partidua jokatu zuen Haundik. Lemoa taldearen zelaian izan zen norgehiagoka eta Haundik 2 eta 0 galdu zuen. Hurrengo asteazkenean, hilak 18, Mintxetan jokatuko dute buletako partidua. Haundik Kopako txapelketan jarraitu nahi badu, gutxienez 3 eta 0 irabazi behar dio talde bizkaitarrari. Garaipena lortzea ez da batere erraza izango baina Haundik askotan erakutsi du 'haunditu' egiten dela zailtasunen aurrean.

## Gemma Monreal margolariak 30 oleo erakutsiko ditu Kultur Etxean

Kuadro bat emango du Artazo baserriaren alde dirua biltzeko

**G**aur, ostirala (hilak 13), Gemma Monreal margolari elgoibartarraren oleo erakusketa inauguratuko da Kultur Etxean. Arratsaldeko 19:00etan irekiko ditu atea eta hilaren 29ra arte egongo da ikusgai. Gemmak 30 oleo aurkeztuko ditu oraingoan. Bere estiloari leial, paisaiak, etxeak, auzoak eta antzerako motiboak dira kuadroen gai nagusiak. Elgoibarko hainbat txoko margotzeaz aparte, Euskal Herriko eta Asturias, Huesca, Segovia, Cazorla eta beste inguru batzuetako lekuak ere jasotzen ditu bere lanetan.

Margotzea “droga bat bezalakoa” da Gemmarentzat, “pasioa”. Eguneroko lanaren ondorioz, “hainbat proiektu, bidaia eta ehunda-



*Gemma badaki zein garrantzitsua den egunero lan egitea. Bere kuadroak lan horren fruitua dira.*

ka marrazki berri ateratzen dira. Lan horren fruitua, berrietasunaren sopresarekin begiratzen den kuadroa sort-

zea litzateke”.

**Artazo baserriaren aldeko donazioa**

Erakusketa amaitu bezain

pronto, aspalditik buruan darrabilen asmoa gauzatu nahi du Gemmak. “Erakusketa egin aurretik, ekainean erzen Artazo baserriaren berre-raikuntzan laguntzeko asmoa nerabilen buruan. Nik margotutako kuadro bat ematea pentsatu dut. Artazo baserri-koei edo diru bilketan ari diren Sallobenteko auzotarrei emango diet, eurek errifa edo antzekoren bat antolatu eta batzen duten dirua Artazorentzat izan dadin”. Margolari elgoibartarrak ez du pentsatu oraindik zelakoa izango den emango duen kuadroa. “Ez dakit jadanik eginda dagoen kuadro bat izango den ala berria egingo dudan. Berria egitekotan, Elgoibarko leku edo gairen bat jasotzen duen kuadroa izango litzateke”.

## ‘Kultur Errota’ gaur, hilak 13, hasiko da bueltaka Elgoibarren

Elgoibarko Izarrak eta Euskara Elkarteek Topaguneak antolatu dute

**E**uskara Elkarteek Topaguneak ‘Kultur Errota’ izeneko programa antolatu du. Formato txikiko hainbat ikuskizun prestatu dira eta asmoa da Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan ikuskizun hauek taularatzea. Estreinako saioa Elgoibarren izango da gaur, hilak 13 (ostirala). Elgoibarko Izarrak antolatu izan dituen ‘Kafe Usainean’ erako emanaldia da gaur gauekoa, baina oraingoan Euskal Herriko kultur gileekin. Gaueko 22:30ean hasita, hiru taldek hartuko dute parte. Batetik, Hondarribi ingurutik etorritako ‘Patxi Kaleko’ folk taldeak musika saioa eskainiko du. Aitor Furundarena, Hurbil Artola eta beste zenbaitek osatzen dute talde hau. Segidan, Aretxabaletako ‘Bi luma’ bikotearen txanda izango da. Bi gazte di-



*Euskal Herriko 25 kultur gile pasatuko dira Elgoibartik datotzen hilabeteotan, horien artean ‘Arima Beltza’ elgoibartarrak.*

ra eta poesia eta musika tartekatzen duen saioa aurkeztuko dute. Azkenik, ‘Ander Lipus’ markinarrek, “Txiro baten monologoa” izenburuko barkarrizketa eskainiko du. Emanaldia Kultur Etxeko sotoan izango da. 500 pta.ko sarrerarekin kafea, pastak eta kopa hartu ahal izango dira.

**Tapia eta Leturia Gaztetxean**

Lehendabiziko eskaintza honen ostean, bigarren eta hirugarren bat ere izango dira. Abenduaren 12an, zapatua, Elgoibarko Izarrak eta Gazte Asanbladak elkarlanean antolatuta, erromeria izano da Gaztetxean ‘Tapia eta Leturia’ trikitilarien eskutik. Hirugarren emanaldia abenduaren bukaeran izango da baina oraindik zehaztu gabe dago zein taldek hartuko duen parte.



# GAZTEAK eta ETXEKO LANAK

*Badirudi gaur egun gero eta ohikoagoa dela etxeke lanetan laguntzea. Gazteek gai hau nola ikusten duten jakin nahi izan dugu eta hitz*

**17 urte**

- 1- Laguntzen al duzu etxeke lanetan? Zer egiten duzu?
- 2- Anaia-arreben artean banaketa egiten al duzue?
- 3- Zuen etxean amak egiten al ditu etxeke lan guztiak?
- 4- Laguntzea ala lanak banatzea da hitza?
- 5- Nola ikusten duzue etorkizuna gai honen inguruan?

*aproposa lagundu edo banatu den galdetu diegu, besteak beste. 17 eta 18 urteko hiru neska-mutilekin izan gara. Hara zer erantzun diguten.*

**17 urte**

1- Bai, nire ohea egiten dut egunero eta larunbatetan bazkariko harrikoa.

2- Ni baino zaharragoa den ahizpa daukat eta berak egunero egiten du harrikoa. Nik ez, etxera iritsi orduko guztiak bazkaldu baitute.

3- Nire etxean amak egiten du dena, aitik noizean behin harrikoa baina oso gutxitan.

4- Hitz egokia banatzea da, hori garbi dago baina, zoritxarrez, laguntzea da erabiltzen eta praktikatzen duguna.

5- Nire kasuan argi eta garbi biko-teak parte hartu beharko du, hau da, lanak banatu egin beharko ditugu ez bainago prest inorentzat lan egiteko.



**Sandra Rodriguez**

**18 urte**


1- Ohea, eta anaiarekin txandaka mahaia jaso eta harrikoa egin.

2- Anaia daukat eta ordutegi bat daukagu zehaztua. Horren arabera, egun batean niri tokatzen zait gauza bat egitea eta hurrengoan berari. Txandaka aritzen gara.

3- Amak egiten du dena, aitik ezer ere ez.

4- Etxeko lanak guztien ardura dira eta banatu egin beharko lirarteke baina normalean lagundu egiten dugu eta ardura amarena da.

5- Gauzak aldatzen ari dira eta mutilok ere konturatu gara etxe-koa guztien lana dela eta banatu egin behar dela. Gurean bi anaia gara eta badakigu gauzak egiten.



**Xabier Angulo**

1- Ohea egunero egiten dut eta horrez gain, amarekin eta ahizparekin txandaka gainontzeko garbiketak egiten ditut.

2- Ahizparekin eta amarekin txandaka ibiltzen naiz. Denbora gehien duena arduratzen da etxeke lanetaz.

3- Nire gurasoak banatuta daude baina aitik bazkariak prestatzen ditu. Etxeko lanik ez du egiten.

4- Oso argi daukat lana banatzea dela, eta ez laguntzea. Guztiak hartu behar dute parte.

5- Gero eta gehiago ari dira aldatzen gauzak. Normalean etxekekoan-dreen lana ez da batere baloratzen, eta etxetik kanpo lan egiten duen gizonak ez du ezertxo laguntzen. Gauzak ez dira horrela izan behar.



**Leire Sanchez**



**INTERESEKO TELEFONOAK**

**OSASUNA**

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 943 461111  
 Txanda hartzeko . . . 943 743354  
 Planning-a . . . . . 943 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385  
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622  
 Gurutze Gorria . . . . 943 743864  
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264  
 Odol Emaileak . . . . 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak . . . . 943 740442  
 PESA (Eibar) . . . . . 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua . . . . 943 744366  
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415  
 Kultura Zerbitzua . . . . 943 742158  
 Mendaroko Udala . . . . 943 756100  
 Ongizate zerbitzua . . . . 943741008  
 Udaletxea . . . . . 943 741050  
 Udaltzaingoa . . . . . 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra . . . . . 943 741626  
 Kiroldegia . . . . . 943 744415  
 Kontsumo Bulegoa . . . . 943 743088  
 Liburutegia . . . . . 943 743525  
 Musika Eskola . . . . . 943 742145  
 Mintxeta . . . . . 943 744315  
 Parrokia . . . . . 943 740842  
 Postetxea . . . . . 943 741547  
 Gaztetxea . . . . . 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296  
 Zaharren Biltokia . . . . 943 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola . . . . . 943 74 21 41  
 HHI (EPA) . . . . . 943 74 08 80  
 Herri Eskola . . . . . 943 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 943 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . . . 943 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) . . . . 943 74 44 80  
 Ikastola . . . . . 943 74 44 41  
 Pilar Ikastetxea . . . . . 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN . . . . . 943 74 41 12  
 El Diario Vasco . . . . . 943 74 40 73  
 El Correo Español . . . . 943 74 10 82  
 Egin . . . . . 943 10 84 21  
 Zazpiki Irratia . . . . . 943 74 34 74

**14**

**larunbata**

**10:30 KARAKATERA V. IGOERA**

Irteera Plaza Handitik  
 Antolatzailea: Urgazi  
 Triatloi Taldea eta  
 Morkaiko M. E.

**19:30-22:15 ZINEA**  
 "Los vengadores"

**22:00 KONTZERTUA**  
 Taldeak: 'La Seta Pasote'  
 eta 'Asto Pituak'  
 Gaztetxean

**16**

**astelehena**

**22:15 ZINEA**  
 "Los vengadores"

**19**

**osteguna**

**22:15 ZINE KLUBA**  
 "Character"

**20**

**ostirala**

**19:00**  
**MUSIKESKOLAKO**  
**GAZTEEN BANDAREN**  
**KALEJIRA**

**19:30**  
**MUSIKESKOLAKO**  
**GAZTEEN BANDAREN**  
**KONTZERTUA**  
 Herriko Antzokian

**22:15 ZINE KLUBA**  
 "Character"

**13**

**ostirala**

**19:00 GAZTE**  
**ASANBLADAREN**  
**BILERA**  
 Gaztetxean

**19:00 MARGO**  
**ERAKUSKETA**  
 Egilea: Gemma Monreal  
 Kultur Etxean  
 Hilaren 29ra arte

**22:00 HITZALDIA**  
 Hizlaria: Josu Imanol  
 Unanue  
 Gaia: Seropositiboan  
 erregistroa  
 Gaztetxean  
 Antolatzaileak: Errotatxo  
 eta Gazte Asanblada

**22:30 'KULTUR**  
**ERROTA' IKUSKIZUNA**  
 Partehartzaileak: 'Patxi  
 kaleko', 'Bi luma' eta  
 'Ander Lipus'  
 Kultur Etxeko sotoan  
 Antolatzaileak: Euskara  
 Elkartearen Topagunea eta  
 Elgoibarko Izarra

**22:15 ZINEA**  
 "Los vengadores"

**15**

**igandea**

**7:30 ERRIOXARA**  
**MENDI IRTEERA**  
 Irteera Plaza Handitik  
 Antolatzailea:  
 Morkaiko M. E.

**9:00 KALAMUARA**  
**MENDI IRTEERA**  
 Irteera Plaza Handitik  
 Antolatzailea:  
 San Bartolome Ikastola

**16:30-19:30-22:15 ZINEA**  
 "Los vengadores"

**18:00 'FESTA DO**  
**MAGOSTO'**  
 Urasandiko  
 Galiza plazan  
 Antolatzailea: Galiza Etxea

**ZINEA**



**Zuzendaria: Jeremiah Chechik.**  
**Antzezleak: Ralph Fiennes,**  
**Uma Thurman, Sean Connery.**

**Los vengadores**

Britainia Handian zerbait arraroa gertatzen ari da. Egun batean sekulako beroa egiten du eta hurrengo egunean, berriz, artikoan egingo lukeen tenperatura. Norbait ari da eguraldia bere gogora kontrolatzen, Britainia Handia bere menpean edukitze-ko. Ikerketa guztien arabera, Sir August Wynter izan daiteke horrelako zerbait egiteko gaitasuna eta dirutza duen bakarra. Eguraldi kontuetan adituak diren bi ikerlari gaizkilea topatzen ahaleginduko dira.

● **'Festa do Magosto' edo Gazteñerre Iguna**

Sasoi honetan Gazteñerre ospatu ohi da Euskal Herriko bazter ugarian. Elgoibarren Galiza Etxekoak dira jai honen antolatzaileak eta 'Festa do Magosto' izenez da ezaguna. Domekan, hilak 15, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, 300 kg gaztaina erreko dituzte Urasandin duten egoitzan. Jatekoari bultza egiteko, 600 litro ardo banatuko dira bertara hurre-ratzen diren guztien artean.

● **Kalamuara mendi irteera**

San Bartolome Ikastolak antolatuta, domekan, hilak 15, Kalamuara mendi irteera izango da. Nahi duen guztiak izango du joateko aukera. Goizeko 9:00etan Plaza Handian elkartuko dira Kalamuarantz abiatzeko asmoarekin.

● **Santa Zeziliako ekitaldiak datorren ostiralean, hilak 20, hasiko dira**

Hilaren 20an, ostirala, Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek emango diete hasiera Santa Zeziliako ospakizunei. Ostiralean, arratsaldeko 19:00etan, Inazio Bereziartua Musikeskolako Gazteen Bandak kalejira egingo du. Ondoren, 19:30ak aldera, kontzertua hasiko da Herriko Antzokian. Gazteen Bandaz gain, talde instrumentalek, ikasleen abesbatzak eta akordei orkestak ere hartuko dute parte.



● **Gobernuak egin nahi duen seropositiboen zerrendaren aurkako hitzaldia**

Errotatxok eta Gazte Asanbladak antolatuta, gaur, hilak 13, gaueko 22:00etan hasita, Gobernuak Estatu-ko seropositiboekin egin nahi duen erregistro edo zerrendari buruz hitz egingo du Josu Imanol Unanue seropositiboak Gaztetxean. Gobernuak, seropositiboen infekzioaren jatorria, ohi-turak, harreman sexualak eta antzerako informazioa jarri nahi du aipatutako erregistroan. Hitzaldiaren ostean, galderei eta solasaldiari tarte bat eskainiko zaie.

● **Errioxako Kodes mendira irteera**

Morkaiko Medizale Elkar-tekoek Errioxako Kodes mendira irteera antolatu dute domekarako, hilak 15. Autobusa goizeko 7:30ean irtengo da Plaza Handitik. Ibilaldiaren iraupena 4/5 ordu bitartekoa da eta ondoren, Kanpezu herrian bazkaria izango da.

● **'Asto Pituak' eta 'La Seta Pasote' taldeak Gaztetxean**

Bihar, larunbata (hilak 14), bi taldek kontzertua emango dute Gaztetxean gaueko 22:00etatik aurrera. 'La Seta Pasote' lau neska gasteiztarrek osatzen dute eta ospe handia ari dira lortzen batez ere abeslariak eskaintzen duten ikuskizunarengatik. Diotenez, laurak dira benetako show-womanak. Baxujolea, garai bateko Vulpess talde mitikoan eta Anticuerpos taldean aritutakoa da. Beste taldekoak, 'Asto Pituak' iruñearrak, 'La Seta Pasote'-rekin batera, inguruan egiten den punk-rock-aren erakusle garbiak dira. Kontzertua doan izango da.

**T R A N D A H**

**FARMAZIAK**

	Egunez	Gauetz
14	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
15	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
16	Escala	Escala
17	Bidasolo	Bidasolo
18	Etxeberria	Etxeberria
19	Anduaga	Anduaga
20	Yudego	Yudego

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38  
**ANDUAGA:** Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

**OKINDEGIA**

18 igandea Doña Mercedes

**ONGARRI**  
zine kluba



Zuzendaria: Mark Van Diem.  
 Antzezleak: Jan Decler, Fredja Van Hüet, Betty Schuurman.

**Character (Holanda, 1997)**

20. hamarkadan, Rotterdam-eko justizia-agente dirudun batek seme bat eduki du neskamearekin. Aitak ez du semea onartzen baina gerora, damutu eta ezkontzeko eskatzen dio neskameari. Honen ezezkoa jaso ondoren, semearen heziketa kontrolatzen saiatuko da. Aita eta semearen arteko distantzia handia bada ere, aitaren eragina nabaria izango da semearen bizitzan. Armendarizen 'Secretos del Corazón' filmari Oscarra ostu zion pelikula da.

**Lana**

◆ **ESKAINZA** ◆

- ◆ Emakumea behar da interna etxeko ardura eramateko. ☎ 943 74 01 75 (ostegun eta ostiralean arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara)
- ◆ Mutil arduratsua behar da zenbait lan egiteko. ☎ 970 672 515
- ◆ Igeltseroa behar da esperientziarekin. ☎ 943 12 08 63 909 71 05 91
- ◆ Neska behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. ☎ 943 74 38 83 (19:00etatik aurrera)
- ◆ Emakume euskalduna behar da etxekolanak egin eta 2 ume zaintzeko. ☎ 943 74 42 43
- ◆ Pertsona gaztea behar da informatikako tekniko bezala lan egiteko. Esperientzia baloratuko da. Interesatuak idatzi 8 postakutxatilara, Elgoibar.
- ◆ Neska behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Ahal bada, euskalduna. ☎ 943 74 45 87
- ◆ Mutila behar da mezulari lana egiteko. Gida baimenarekin. ☎ 943 74 40 54 (goizez)

◆ **ESKAERA** ◆

- ◆ Erizain Laguntzaile tituloduna eskaintzen da zaharrak edo gaixoak zaintzeko. ☎ 943 74 16 71
- ◆ Mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko. Esperientziarekin. ☎ 943 74 25 66 (Aitor)
- ◆ Administrari eta komertzio ikasketak dituen neska lanerako eskaintzen da. ☎ 943 75 50 45
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko ☎ 943 75 50 45
- ◆ Bi gazte eskaintzen dira propaganda banatzeko ☎ 943 74 13 07 (arratsaldean)
- ◆ 38 urteko neska eskaintzen da gaixoak zaintzeko, bai ospitalean baita etxean gauzez ere. ☎ 943 74 31 75 (Carmen, goizez).

**Salerosketak**

◆ **SALDU** ◆

- ◆ Taberna saltzen da Mendaron. Bezeroak ditu, eguneko menua, pintxoak, erretegia... ☎ 943 75 62 85.
- ◆ Lancia Delta Integrale SS AF autoa saltzen da. 124.000 km ditu. Merkea. ☎ 943 75 62 43

- ◆ Citroen AX autoa salgai. ☎ 943 74 24 67 (Conchi)
- ◆ Amazona Aestiva loroa saltzen da. 97 anilla. Arra. ☎ 929 43 81 54 (Xabier)
- ◆ Lokal komertziala saltzen da Urasandi Sean. 27 m2 ditu. ☎ 943 75 12 76
- ◆ Larousse enziklopedia eta bi suplemento saltzen ditut. ☎ 943 19 50 98 (Esther. 20:00-21:00)
- ◆ Super Nintendo kotsola saltzen da. Bi mando eta sei jolas ditu. ☎ 943 74 22 75 (Iñigo)
- ◆ Bodyboard bat saltzen da, Wave Rebel. Aletak Rip Curl eta 2x3ko traje motza. Merke. ☎ 943 74 38 76 (Ivan)
- ◆ Land Rover motza saltzen dut. Egoera onean eta merke. ☎ 943 74 06 88
- ◆ Bideo-kotsola saltzen da. Super Nintendo, bi mandu eta zazpi jolasekin. ☎ 943 74 41 47
- ◆ Gazteen logelarako altzariak salgai, merke. ☎ 943 74 20 41
- ◆ Ford Orion 1.600 GHIA zuria saltzen da. 250.000 pta. Interesatuak galdetu Merkatu Plazako 22. postuan. (Ana)
- ◆ Kutxa forma duen ohe tolesgarria saltzen da. Pinuaren egurrez egin. Oso polita. ☎ 943 74 40 85

◆ **EROSI** ◆

- ◆ Trikitixa bat erosiko nuke. 3 edo 4 ahotsekoa. ☎ 943 75 61 83
- ◆ Egoera onean dagoen bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. ☎ 943 76 56 78 (M. Jesus. Goizez)

**Hxebizitzak**

- ◆ Pisua alokatzen da Ubitarten. ☎ 943 74 03 41
- ◆ Apartamentua saltzen da Ezcarayn. ☎ 944 95 05 37 (Charo edo Javi)
- ◆ Osasun kaxkarra duen senar-emazte nagusiak etxea hartuko luke alokairuan. Igogailuarekin eta merke. ☎ 943 74 03 37
- ◆ Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua, ganbararekin eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83 ☎ 943 74 18 34
- ◆ San Bartolome 2an, 4. solairuan dagoen 25 m2ko teilatupeko lokala salgai. 1,5 milioi pta. ☎ 943 20 30 83 (Arantxa)
- ◆ Logelak ditut alokatzeko. Urasandi kalean. ☎ 943 74 03 93 (20:00etatik aurrera)

- ◆ Etxea salgai Mendaron. Sukaldea eta jangela guztiz ekipatuak (Vegasa eta AEG). 35 m2ko garaiea eta 12 m2ko ganbara ditu. ☎ 943 75 62 43
- ◆ Apartamentua salgai Loredon. Altzariak ditu eta garaje itxia. Prezio interesgarria. ☎ 943 74 29 32
- ◆ Alokairuko etxean dagoen mutil batek laguna behar du partekatzeke. ☎ 989 34 81 97 (Gaueko 21:00etatik aurrera).
- ◆ Neska batek beste neska bat behar du alokairuko etxea konpartitzeko. ☎ 94 68 24 148
- ◆ San Bartolome 2 zenbakiko 4. pisuan dagoen 25 m2ko teilatupeko lokala salgai. 1.500.000 pta. ☎ 943 20 30 83 (Arantxa)

**Agurak**

- ◆ Zorionak **Oier**-i asteartean eta 13an jaio zelako. DBHkoen partez.
- ◆ Zorionak **Miren Ramosi** gaur 9 urte bete zituelako. Tomas, Blanki eta Jokinen partez.
- ◆ Zorionak **Maidar Gomezi** azaroaren 11n 9 urte bete zituelako. Ikastolako 4A eta 4B gelen partez.
- ◆ Zorionak **ama** hilaren 15ean urteak beteko dituzulako. Zure semeen partez.
- ◆ Berandu izan arren, zorionak **Joakin Badiolari** hilaren 6an urteak bete zituelako. Amaren, arre-baren eta iloba Leire eta Oihanaren partez.
- ◆ Zorionak **Arantxa Astiazarani** hilaren 8an urteak bete zituelako. Bere alaben partez, musu handi bat.
- ◆ Zorionak **Iban Gonzalezi** hilaren 15ean 13 urte beteko dituelako. Mila musu gurasoen, anaiaren eta aitonen partez.
- ◆ Zorionak **Ander Gabilondori** gaur 6 urte bete zituelako. Gurasoen partez.
- ◆ Zorionak **Felisa Arriolari** bere 80. urtebetetze egunean. Musu handi bat etxekoan partez.



◆ Zorionak **Iker eta Olatzi** beraien 10. urtebetetze egunean gurasoen eta bereziki Igorren partez. Musu handi bat bioi familia osoaren partez, baita aititxa eta amamaren partez ere.



◆ **Miren Ramos**-i zorionak gaur 9 urte bete zituelako. Guraso eta ahizpa Idurren partez.



◆ Zorionak **Aritz Cerezori** azaroaren 12an urteak bete zituelako. Gurasoen eta anaiaren partez.



◆ Zorionak **Jon Rodriguez**-i azaroaren 11n 9 urte bete zituelako. Gurasoen eta arrebaren Eiderren partez belarririk tirakada haundi bat. Zorionak, baita ere, Jokinen partez.



◆ Zorionak **Jose Juradori** azaroaren 15ean urteak beteko dituelako. Etxekoan partez.




◆ Zorionak **Maialen Gallastegiri** hilaren 17an 4 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **M. Jose Martini** bere urtebetetze egunean, familia osoaren partez. Egundua pasa dezazula.



◆ Zorionak **Julen Agirrego-mezkortari** hilaren 18an 5 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez, bereziki Itsasne eta Maitaneren partez.





# Denda berria




## Gotzon Agirrezabal

Tel/Faxa: 943 76 72 52


### ORDUTEGIA

astelehenetik zapatura:  
10:00-13:00  
eta 16:00-20:00.



AIT-ITVtik  
100metrotara

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak



Amillaga industrialdea, 5 · BERGARA · Renault-en ondoan



# 943 74 37 04

Azaroak 30, azken eguna

## 1999ko GIDA

Gure gidan Elgoibar eta Mendaroko telefono

**KOMERTZIALA** prestatzen  
komertzial guztiak aterako ditugu. Zure

ari gara. 1998ko Gidan  
negoioaren publizitatea egin nahi baduzu dei

agertu ez bazinen edo  
ieizaguzu lehenbailehen eta aukeratu zer den

daturen bat oker bazegoen  
komeni zaizuna: izena negritaz ipini, publizitate

deitu lehenbailehen.

moduluak,... aukera guztiak zure esku.

# Unicef-eko publizitatea